



## Karnabalak Oñatin 1927xan

**F**rancoren diktaturapeian, beste gauza asko letxe, **karnabalak** be debekau egin ziran. Baiña 1923tik 1930era Primo de Riverak jarri eben diktadura-garaixan, hainbat arlotan murrizketak egon arren, libre zan garizuma aurreko jai zaratsuok ospaketia. Oñatin karnabal edo **aratiztiak** lehenagotik izaten zirala badakigu: bestiak beste, XIX. gizaldixaren akaberako kantapapel bat gordeten da estudiantien iñauteri-bertsu batzuekin. XX. mendeko lehenengo hamarkadetako argazki batzuk be aillegau xaku eta horreittako batzuk agertu izan dittugu **Kontzejupetik** aldizkariko sail honetan. Bigarren Errepublikan inddar gehixago hartuaz fan ziran jaixok, baiña 1937ttik aurrera berrogei urteko etena euki euen, gorago aittatu dogun debekua zala-eta.

Etxaluzeko plazatzuan, itturri onduan, atarata daguen fotografixa hau Primo de Riveraren denporakua da, 1927kua hain zuzen be. Atzekaldian eskumatara ikusten dan Arzelustarren etxia zihero barriztau eben urte batzuk lehentxuago Damian Lizaur arkitekto oñatiarrak. Eta ezkerretara agiri dan Renomdarren etxiaren hurrengo **Cenicero** izeneko taberna famaua eguen sasue haretan. Tabernia ez ezik, jatetxia eta fondia be bazan eta estimaziño haundixa eukan herrittaren nahiz kanpotarren artian. Gerra ostian, 1950ko hamarkadatik aurrera, **Urubil** izenagaz ezagutu geben, Galdostarrak Elgoibarrera fan zirañian, Larrañako baserri horretako Guriditarrak hartu euelako. Honeik itzitta gero be, ebali izan zan lokal hori, jaixetan-eta, **Ikastolako** edota **Laixaneko taberna** moduan.

Argazki honetan kanpotar batzuk ikusi geinke. Oñatira urte hareittan lanera etorritakuak ziran eta batzuk behintzat Ceniceron egosen apopillo. Tabernan sortutako kuadrillia izango zan kotxian doiana. Automobilla dotoria da benetan, eta gaiñera majo apaindduta dago lora-sortaz eta koruez aurre-atzekaldetan eta txirrinketan. Numeruai jarraituaz, honeik dira ezagutu ahal izan dittugun karnabaluok:

- 1.- **Segundo Martínez de Iturrate**, Arabako Otazakua, Milikuaneko Ixabelekin ezkondu zana; 2.- **Pablo Kernstock** alemana kapela altuaz, gero San Juan kaliañ tailerra ifini ebena; 3.- **Felix Igartua** txiruliarekin, Kale Zaharrekua, Arruenera ezkondu zana; 4.- **Irujo** izeneko naparra, Garañieneko jardñerua, berakatz-kordia txintxiliz dakola; 5.- **Luis Ibarrola** bergararra, gero Atzeko kaliañ bizi izan zana; 6.- **Antolin Arana** eskoriatzarra bolantian, urte askuan **Oñatiarreneko** mekanikua eta txoferra izandakua; 7.- **Anjel Galdos** Ceniceron tabernako semia, batuta moduko batekin eta kapeliarekin; 8.- **Juan Soriano** bizkaitarra, **Gallarta** ezizenez ezagunagua, Plazaolatar batekin ezkondu zana: hemen kittariakin dago, baiña saxofoia be joteti eben; 9.- **Isaias Martínez** gasteiztarra trianguluarekin, Maria Illaramendirekin ezkondu zana; 10, 11 eta 12 numeruaz dagozenak eta eskumakaldeko emakumiak ezezagunak egitten xaku. Ia baten batek identifikaitten dittuen.